



## **GOMENDIOAK: IZOTZALDIA ETA MUTURREKO TENPERATURA HOTZAK**



Gomendatzen dugu Euskalmet web-gunearen bidez <http://www.euskalmet.euskadi.eus> eta Twitter bidez (@Euskalmet eta @112\_SOSDeiak) eguneratzen diren iragarpenak jarraitzea.

Hona hemen Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren aholkuak izotza eta muturreko hotza gertatzen direnerako, ondorio txarrik ez egoteko, edo ahalik eta gehien murrizteko:

### **HERRITARRENTZAKO GOMENDIOAK:**

#### **Prebentzioko neurriak:**

- Ondo jantzita ibili, batez ere, kanpora irten behar baduzu. Bereziki, eskuak eta burua babestu; jantzi oinetako egokiak eta ahoa estali arnasa hartzean aire hotzegia ez arnasteko.
- Erregaien erreserba hobetze aldera, ez berotu etxe osoa; hobe da gelak ixtea eta soilik behar den lekuetan jartzea berogailua.
- Kontu izan berogailu lagungarri, sutontzi edo estufekin, ezustekoren bat gerta daiteke-eta.

#### **Bidaiatzekotan:**

- Eskatu informazioa abiatu aurretik, jakiteko bideak nola dauden eta eguraldiak zer egingo duen. Euskalmet-era jo, edota deitu Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzako telefonora: **011**.
- Eguraldia benetan txar-txarra bada, hobe da bidaiari ez ateratzea. Ahal dela, erabili garraio publikoa.
- Alabaina, ezinbestekoa baduzu bidaiatzea, ziurtatu pneumatikoak, galgak eta izotz-kontrakoa ondo daudela, hartu kateak, erregai-tanga beteta eraman eta ez ahaztu berokiak. Ahal baduzu, eskuko telefonoa eraman beti; bereziki, bigarren mailako errepideetan gidatu behar baduzu.
- Poliki ibili, izotz-plakarik balego adi beti, batez ere, laiotzean.
- Aurreko autoari tarte handia lagata ibili, normalean uzten den tarte baina handiagoa.
- Ez aldatu noranzkoa tupustean. Bolanteari gozotasunez eragin, eta martxa laburretan ibili.



- Izoztuta dagoen zati batera sartzean, ez zapaldu galga, utzi ibilgailuari bere inertzia hutsez aurrera egiten.
- Izotza edo elur gogorra topatuz gero jarri kateak, baita zirkulazioko agenteek agintzen dizutenean.
- Irrati oso lagungarria izan daiteke, une oro ondo informatuta egoteko.

#### **Larrialdietan hartu beharreko neurriak:**

Norbait larri **hoztuta** geratu bada edo **hipotermiak** jota, hona hemen oinarrizko aholku batzuk, laguntza iritsi bitarterako:

- Saiatu biktima berotzen, baina ez bat-batean, baizik apurka.
- Gehien hoztuta dituen zatiak leun-leun mugiarazi, masajeak emanek, izozte-sintoma garbirik ez badauka behintzat.
- Ez eman inoiz alkoholik edateko. Salda, infusioak eta halakoak eman.
- Babak baldin badauzka, inolaz ere ez ziztatu.

**Ibilgailua** geratzen bada:

- Egon bertan, kotxe barruan.
- Motorra piztuta eta berogailua jarrita eduki, eta berriztatu airea tarteka.
- Saiatu loak ez hartzen. Tapakiren bat eskuratu, eta bero jantzita ibili.

**Larrialdietan, deitu  zenbakira.**

#### **UDALENTZAKO GOMENDIOAK:**

##### **Prebentzioko neurriak:**

- Udaleko larrialdiko planeko ekintza-planean agertzen diren langileei abisu eman. Bestela, halako egoeretan lagungarri izan daitezkeen udal-zerbitzuak aktibatu (udaltzainak, boluntario-taldeak, obra eta zerbitzuetako langileak, ur eta estolderietako zerbitzuak eta abar).
- Ez ahaztu Udal Larrialdietako Sareko TETRA emisorea hor daukazula, SOS Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin kontaktatzeko.

##### **Larrialdietan hartu beharreko neurriak:**

- Jakinarazi herritarrei izotza eta muturreko hotza egoteko arriskua dagoela, eta azaldu zer neurri hartu behar diren arriskua prebenitzeko.

**Larrialdietan, deitu  zenbakira.**

#### **LARRIALDIETAKO ZERBITZUENTZAKO GOMENDIOAK:**

- Kontingentzia-planean egoera hauetarako zehaztutako langileei abisu eman. Bestela, egoki iruditzen zaizkizuen laguntzaileak aktibatu.
- Moldatu eskura dauden bitartekoak, dena delako egoerari ahalik eta ondoen erantzuteko.
- Jarraipeneko mahaia edo krisi-mahaia antolatuz gero, garaiz jakinaraziko zaizue, edo lehendik aurreikusita zeudenetara dei egingo zaizue.